

Itzulpena itzulera da

Hitzaldi elkarrizketatua

Anjel Lertxundi & Jorge Giménez Bech

Anjel Lertxundi (1)

Idazle bat eta itzultzaile bat aurrez aurre, horra antolatzaileek ezarri diguten betebeharra. Jorgek eta biok hamar bat itzulpen-lanetan egin dugu elkarrekin lan, eta, itzulpen-lan bakoitzak bere ezaugarri bereiziak izan baditu ere, guztietan gertatu da oinarriko egoera bat nire sortze prozesuari dagokionez: itzulpenean izan ditugun arazoek, testuan detektatu ditugun hutsuneek, hartu ditugun erabaki eta norabideek nire idazkuntzari buruzko hausnarketa eta hurrengo obrari buruzko estrategia eragin dituzte.

Hasiera honetan, ordea, hasierari ekin behar diot, testua jaiotzen den momentuari, idazlearentzat idazteko momentua bera baita errealitate bakarra: idazten ari naizenak sortze-ekintza horretan du egitatea, hortik kanpoko oro, baita testu horrek inoiz izango lukeen itzulpena bera ere, testuari batere mesederik egiten ez dion kezka antzua da.

Hizkuntza jakin batean gauzatzen da sorkuntza, eta emaitzak bere adierazkortasun propioa izan behar du bere baitan. Adierazkortasunaren zati handi bat hizkuntzari

dagokio, artistak hizkuntza du lagun eta eragozpen, bide eta bidegurutze. Idazleak senezko zehaztasun batez jakin behar du zer atera diezaiokeen hizkuntzari, etekin horren lorpena du lehia, neke eta arrago.

Kontatu nahi dena eta hizkuntza elkartzea du helburu sorkuntzak, berez arrotzak diren bi elementu erakarri behar ditut dantza berera. Badakit zer kontatu nahi dudan, baina kontatu nahi dudan horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko, estrategia markatu behar dut, oso eremu desberdinetatik datozkidan kontuak (estetika, narratologia, gramatika...) uztartu behar ditut. Estrategia literario jakin bati erantzuten dio idazkuntzak (estrategia falta bera ere estrategia bat da), estrategia horren arabera ekiten dio idazleak sortze prozesuari. Prozesu horretako hautamen estrategiko bakoitzak pentsamendua konkretatzen du eta, ondorioz, mugatzen; transmititu nahi den sentimendua malgutzen du; lortu nahi den efektua zehazten du eta, hartaz, bakoizten.

Era askotako ekintzak koordinatzea da, berez, idazle baten lana, eskuetan ditudan baliabideek lagundu behar didate nahi dudan testua eraikitzen: perpausen sistema, ikuspuntuak eragindako nondik norakoak, esaldien erritmoa, adjektiboen nolakoa... Argi jakin baten bila nabil,

film bat errodutzen hasi aurretik zuzendariak eta argazkilariak filmeko argia erabakitzen duten oso antzera. Behin marko orokorra hautatu eta gero, etorriko diren gainerako hautamen guztiak marko orokor horren baitan kokatzea da kontua, aire berdintsua nahi nukeelako hemen, kontrastea egiteko hor...

Elementu bakoitza, baita garrantzirik gabetzat jotzen dugun xaloena ere, sistema batean integratzen da, osagai bakoitzak beste askoren oihartzuna dakarkigu, erlazio bakoitza beste erlazio baten metafora da, amaierarik gabeko lotura batean. Eta erlazio sare ezkutu horri eusten dion ehundura nabarmen bezain zehatzezina litzateke, niretzat, tonua.

Estiloa, pentsamenduaren jantzia deitzen duten hori, adierazpen-baliabideak erabiltzeko **era** jakin eta berezi bat baldin bada, adierazpen-baliabideen erabilera jakin horrek eragindako **efektua** litzateke niretzat tonua. Estilo jakin eta berezi baterantz egindako bidea da idazletza, baina benetako estilo batek efektu askotarako ematen du.

Beti arduratu nau estiloa eta tonua bereizteak: estiloak idazkuntzaren nortasun orokorra zehazten du; tonua, ordea, testu bakoitzeko ahotsa bereizten eta

identifikarazten duen elementua da, oihartzunak entzunarazten ditu, trenpu narratiboaren argi-intentsitatea zehazten dit. Estilo jakin batek eman ditzakeen espresatzeko modu ugarien artean bat zehazten du tonuak, ideien ordena eta mugimendu jakin bat gauzaten ditu. Estiloak idazle baten idazkuntza deskribatzen du; tonuak, berriz, estilo horrek obra edo une jakin batean ahalbidetu dituen emaitzak.

Euskara bezalako hizkuntza batean idaztetik datorrit, agian, tonuarekiko kezka eta obsesio hori. Idazlea naizen aldetik, ezagutzen ditut nire garaiko joera estetikoaren norabide nagusiak. Euskal idazlea naizen aldetik, berriz, eta nire hizkuntza normalizazio bidean dagoen neurrian, tentsio berezi bat bizi dut: normalizazioaren alde egitera narama nire hizkuntzaren egoerak, baina berdinkeraren kontra lehiatzera narama idazle senak: idazleak ez badu besteen berdina izan nahi, zergatik behar dute berdinak izan idazle horrek sortutako testuek?

Bestalde, aipagarria da euskal idazle naizen aldetik dudan beste ezaugarri bat ere: mundu idatzi urriko tradizio batean ari naiz eraikitzen nire mundu idatzia.

Euskaraz idazteak dakartzan beste gorabehera asko aipa ditzaket, hizkuntza txikia izatetik datozenak batzuk, euskararen egiturak eraginak beste hainbat, hizkuntzaren soziologiak eta historiak markatutakoak beste hainbat. Kontua da idazle guztion kezka estetikoak eta lana berdintsuak badira ere, idazten ari garen hizkuntzak zehaztu, banatu, desberdindu egiten dituela arazoak.

Demagun orain kezka horiek guztiek eta hainbat hilabeteetan egindako lanak eleberri formako testu jakin bat sortu dutela, demagun *Argizariaren egunak*, orain arte nik idatzi dudan eleberririk handi goseena eta itzultzaileak eta biok elkarrekin egin dugun lanik zailena. Eleberri horretan bi testu klase daude, amodio istorio konbentzional bat modu konbentzional batez kontatzen duena bata; konbentzio horren kontrako irakurketa ero, hautsi, sarkastikoa egiten duena bestea. Paraleloan eta lehian doaz bi testuak, orain bat orain bestea, ez dago garbi zein den testu nagusia eta zein menpekoa, baina bien arteko ibilbideak eta lehiak halako efektu ironiko bat lortzea du helburu. Idazten hasi aurretik, Jorgerekin izandako solasetan agerian utziak nituen kontatu nahi nuen istorioa, testuari eman nahi nion giroa, estrukturak sortzen zizkidan kezka nagusiak (beti jokutzen dugu horrela, ditugun

ahaidetasun estetikoek lankidetzak klase hori errazten dute). Baina orain itzultzaileari eman behar diodan testua oso urruti dago hitz egin genuen hartatik, itzultzaileak oso gutxi daki idazterakoan egin dudak bidez eta izan ditudan kezkez. Egotekotan, testuan daude horiek guztiak.

Itzultzaileak, bada, eskuetan du orain orijinala. Badakirik badakidala gaztelaniaz, badakirik, halaber, elkarrekin aztertuko dugula berak egin behar duen itzulpena.

Berea da orain txanda.

Jorge Giménez Bech (1)

Abisatuta nengoen. Anjelek nire eskuetan jartzen duen hamargarren lana da, aurrekoen aldean oso bestelakoa. Uste baino bestelakoagoa ere, lehen begiratu batean bederen.

Hasteko, bi kontakizun paralelo datoz, baita fisikoki ere parekatuak, baina ez denbora edo espazioaren legeen arabera paraleloak. Amodio historia baten tankeran eginga lehendabizikoa, eta egunkari moduan taxutua bigarrena. Bigarren kontakizun hori idazten duenak “kontakizun nagusi” izendatzen du lehendabizikoa, eta bera da bietan kontalaria eta, aldi berean, protagonista. Lehendabizikoak, ibai patxadatsu baten moduan daramatza gertaera, gogoeta eta deskribapenen urak amaierarik gabeko amaieren itsasorantz. Bigarrenaren urak, ordea, trumilka jaisten dira, eta uholdearen itxuran irensten dituzte aitorpenak, kontakizun txikiak, hausnarketak eta bidera ateratzen zaien oro, kupidarik batere gabe. Lehendabizikoan, gaurko irakurlearentzat guztiz ohiko eta ezagun gertatzen den paisaje batean mugitzen da Anjelen kamera, eta argiak ere, batez bestean, epelera egiten du beste inora baino gehiago. Bigarrena, aldiz, egunerokotasun arruntetik erabat kanpo geratzen den erietxe-zoroetxe-zigorretxe-espetze-edo batean kokatua da, eta errea du argitasuna, zuri errea, kontrastezko beltzune trinkoez indartua.

Bigarren kontakizunean, bestalde, kontakizun nagusiarekiko erreferentziak ageri dira, oso tarteka bada ere, eta, horietako aipamen batzuen arabera, epaile-edo batentzat idatzitako memorandum bat ere izan liteke kontakizun nagusia, drama baten ustezko eragileak balizko erruak zuritu —edota belztu— beharrez idatzia.

Agerian dira lehendabiziko kezkek. Testu hautsia da, irakurlearen begietan, Anjelen hau. Nola idatzi ditu, ordea, bi kontakizunak?: nagusia, lehendabizi, eta gero, *collage* tankeran, bigarrena osatzen duten testu laburragoak?, alderantziz?, ala irakurleari aurkezten zaion segidan idatzi ditu? Hiru aukera horiek beste hainbeste hipotesi eraiki dute itzultzailearen kautan: 1) Amodio historiak dakarren dramari kontrapuntua jartzeko premia sentitu du

idazleak, eta oso bestelako hizkuntz baliabideak erabili nahi izan ditu bigarren kontakizunean, bi kontakizunak plano estetiko guztiz ezberdinetara eramateko asmoz. Alegia: Lertxundik kontra egin nahi izan dio Lertxundiri, tonuari dagokionez. 2) Lehendabiziko historia kontatzeaz aparte, egunkari moduan kontatzen direnak bizi ditu kontalariak, eta egunkari hori izan liteke, lasai asko, liburuaren iturburuan dagoena. Alegia: idazkera hautsiari, Anjelek bestela ere hain kuttun duenari, atze oihal lertxundiarrago bat jartzeko premia sentitu du idazleak. Alegia: bere buruaren aurka matxinatu eta gero, Lertxundi Lertxundiz urrikaldu da. Eta 3) Dosi neurtuetan eta bateratsu idatzi ditu bi kontakizunak, fakir baten antzera, irakurleari pozoia eta sendabelarra batera eskaintzeko asmo maltzurrez. Alegia: Lertxundik Lertxundiren mozorroa jantzi du.

Honezkero, barrenak abisatu dit ez nukeela laugarren hipotesi bat ere hain erraz baztertu behar, berau izango baita, Anjel pixka bat ezagututa, egiantzekoena: hiru hipotesi horietatik zerbait egongo da, baina ez bakoitzetik gehiegi, eta asko, ordea, idazleak bere goardako mamuekin hitzartutakotik.

Oroimena, horrelakoetan, bere kasa abiatu ohi da laguntza eske, itzultzaile honen jakituria urritik deus handirik itxaron gabe. Eta oroimena izan da, beraz, Bohumil Hrabalen liburu bat hartzera eraman nauena: gaztelaniaz ezagutu nuen *Quién soy yo*. Idazle txekiarrak, liburu horretan, era paraleloan ematen ditu, baita ere, bi kontakizun: orrialdeetan (gaztelaniazko edizioan bederen) goiko partea hartzen duen testuan, gogoeta autobiografikoak harilkatzen ditu, guztiz berea duen estiloan idatziak. Beheko zati txikiagoan, oinoharrei eskaini ohi zaien horretan, berriz, egile beraren zati fikziozkoagoak ageri dira, beste lan batzuetatik hartuak eta, testu baten kasuan, beste itzultzaile batek gazteleraz emana. Liburu honetan, itzultzaileak bi lan hartu behar izan ditu beregain: irakurleok lehenagotik gaztelaniaz ezagutzen genuen Hrabalen erregistroa era identifikagarrian ematea, eta, beste baten itzulpena sartzeko adorea izan duenez, elkarren arteko nolabaiteko batasuna zaintzea. Baina eredu ez zait baliagarria gertatzen, Hrabalen liburu hori *collage* garbia baita, eta ez sortze une berean helburu bakar baterantz jaurtikitako gezi bikoitza. Lertxundik, Hrabalek ez bezala, bere buruarekiko —hobe esan, bere idazkerarekiko— lehia ekarri du liburu honetara, eta horrek estilozko erabaki

berriak hartzera behartzen du itzultzailea. Izan ere, itzulpena idazlearen asmoetatik ahal bezain hurbil eramateko ahaleaginean, derrigorrezkoa geratuko zait orain artekoetan Anjeli jarri izan diodan gaztelaniazko ahotsarekin Anjelek berak euskarazkoarekin egin duena egitea: bere erregistroetatik aldendu denetan neu ere aldentzea, eta, horren ondorioz, euskaraz erabili dituen hizkuntz baliabide berriei gaztelaniazko ordain egokia bilatzea. Eraginkorra eta, ahal den neurrian behintzat, sortzailearentzat ere eroso.

Azken hori baita, Anjelekiko nire lankidetzan, ezaugarri behinenetariko bat: Anjelek gaztelaniaz badaki, eta gaztelaniaz ere idatzi ohi du, nahiz eta fikzioa beti euskaraz idatzi duen, eta gaztelaniaz defendatuko du, hala egokitzen zaizkionetan, bere obra gazteleratua. Eta, hori guztia gutxi balitz, bizirik dago. Azken hau, jatorrizko testuaren sortzailea bizirik egotearena alegia, da arazo horietan guztietan neuk konpon nezakeen bakarra, baina ez dut uste inongo epailek onartuko lidakeenik, hilketa baten zurigarri, modu honetako zerbaite: “epaila jauna: idazle ona, idazle hila” edo “epaile jauna: horrela ezin esango dit Lertxundik bere iradokizunik maiteena: ‘ez zakiat zerk, baina esaldi horretan zerbaitek egiten zidak enbarazu”.

Antzeman beharko dut, beraz, testu honetan non dagoen Lertxundi eta non Antilertxundi, eta, batez ere, nola eman daitezkeen gaztelaniaz bataren zein bestearen erregistro ñabardura funtsezkoenak.

Hitz egin izan dugu, bai, eleberria idatzi aurretik eta idazten ari zela ere, egin nahi izan duen apustuaren nondik norako nagusiez, baita hitz aspertu luzeak egin ere, baina, batetik, Anjel ez zen, artean, itzul zitekeen testu baten egilea, idazle *in progress* baizik, eta, bestetik, ni ez nintzen hari buruan bueltaka zebilkion eleberriaren gazteleratzailea, literatur konplizea baizik. Orain, ordea, zeharo aldatu dira gauzak: idazleak jaregin du txoria, eta nik beste hizkuntza baten sarean harrapatu behar dut, lumak gehiegi hondatu gabe eta kantari jarrai dezan.

Horretarako lehendabiziko urratsa, Anjelen testuetan topatu izan dudan arazo nagusien presentzia antzematea: nola itxuratu ditu gogoeta isilak?; zein girotako tropoak erabili ditu; euskaraz hain ondo funtzionatzen duten

horietakoak eta gaztelaniaz moldapena beste irtenbiderik ez dutenak?; maiz erabili al du hain berea duen lotura ez agerikoa esaldien artean?; nola jokatu du, oraingoan, bere adjektibazio askotan bihurriarekin?

Zalantzen ondoan, hainbat segurtasun ere eman dit testuak: deskribapenetan, beti bezain zintzo dabil; elkarrizketan, erraz eta eraginkor; perspektiba narratiboari dagokionez, samur mugitzen du kamera; ironia, haserrea eta sarkasmoa, identifikagarriak eta dotore emanak; erotismoa, giroan eta hizkeran ondo integratua; euskararen mesedetan landutako esamolde berritzaileak itzultzerakoan, gaztelaniak ere jasotzen du onurarik.

Azkenean, eta hipotesiak hipotesi, testua datorren ordenan gazteleratu dut, irakurlearen tokian jarrita: kontakizun nagusia, lertxundiera garbienean dagoen horretan alegia, goxo joan da kontua; kontakizun paraleloan, berriz, ez dakit... Gehiegi behartuko ote nuen egilearen hizkera? Obsesionatu al naiz erregistroen arteko ezberdintasunetan? Niri atera zaidana ote da Anjelek nahi zuen sarkasmoa? Eta ironia haizea, jasota geratu al da gaztelaniaz?

Gutxitan atera zaizkit bidera arazo narratibotzat har daitezkeenak, baina bakarren bat ikusi uste izan dut... Ala nire interpretazio arazo soilak dira?

Halaxe doakio, nolana ere, itzultitako testua. Bizirik segitzen duenez, sufri dezala pixka bat.

A.L. (2)

Abisua emana nuen, neu ere abisatuta nengoen zer nolako kexua aterako zitzaidan itzulpena eskuetan izan orduko:

"Ez zakiat zerk, baina hik egindako itzulpen horretan zerbaitek egiten zidak enbarazu".

Hasierako itzulpenetan handia zen enbarazua. Gogoan dut oso urruti ikusten nuela neure buru euskaldun gaztelaniaduna *Kapitain Fracassa* edo *Otto Pette* eleberrietako itzulpenetatik. Ordutik, itzulpen asko etorri da, eta ez dakit ohitu egin naizen. Nahiago dut pentsatzea jokoaren arauak errespetatzen ikasi dudala.

Nolanahi ere den, erraz samarra egiten zait sentitzen nuen eta oraindik ere sentitzen dudan enbarazu hori zehaztea: gaztelaniaz dakit, inoiz tokatzen zait artikulu, erreportaje literario, saio eta horrelakoak gaztelaniaz idaztea, eta neurea ez den gaztelera batera makurtu behar dut neure borondatea. Ni naiz jatorrizko testuaren egilea, baina Jorge da itzultzailea, hori da jokoaren arau nagusia: ezin dut jabetza intelektualaren txantajea egin, ez dut itzulpenean interbenitu behar, ez bada esandakoak

zehazteko, okerrak zuzentzeko edo zalantzak argitzeko. Horra, bada, zein den kontua: Jorgeren gaztelania eta neurea desberdinak dira, kontu batzuetan *oso* desberdinak: hautamen formalez aparte, bion gaztelaniek iturri, historia eta praktika desberdinak dituzte. Erdibide bat bilatuko dugu bi gaztelanien artean? Jorgek neurera egin behar du txango ala neu naiz Jorgerenera egin behar duena?

Demagun Jorgeren itzulpen bat:

"La fiebre y el dolor de cabeza remiten. En cuanto al sueño, no podría quejarme (¡ya es algo, después de tantas pesadillas!), si no fuera porque todas las noches me llegan, desde los cuatro puntos cardinales del Beaterio, los ecos de unos cánticos lastimeros que recuerdan al llanto. Las palabras son lacerantes; lacerantes son también las melodías. Estoy recogiendo algunas en el cuaderno negro".

Testua ez da batere zaila, ez du gorabehera lexiko edo morfosintaktiko berezirik. Eta, hala ere, kontua da orijinalean esaten nuena guztiz errekonozitzen badut ere, ez dudala neure burua ikusten, ez erabat behintzat, hitzari hitz eta esaldiari esaldi lotutako sekuentzia horretan.

Segitzen dut irakurtzen eta berez bezala doa testua, ez du gorabehera handirik, irakurtzen ari naizenak ez du

zertan lotsatu gaztelaniaz irakurtzen ditudan hainbat itzulpen onen aurrez aurre. Badu tonu propioa ere, niri hainbeste interesatzen zaidan musikaltasun definiezin hori. Ezaguna egiten zait hainbat pasartetako argia ere: hainbat pasarte idazterakoan, Michel Carné-ren *Quai des brumes* filma izan nuen gogoan, eta *Quai de brumes* datorkit berriro gogora. Orduan? Zerk urduritzen nau, non dago arazoa? *Argizariaren egunak* nik idatzi banuen ere, *Los días de la cera* nigandik hurbil eta urruti dagoen batek idatzi duela? Ez naizela guztiz ni, ez nagoela osoro ni Jorgek egindako itzulpenean?

Hasi gara nire irakurketaren eta testuaren arteko kontraste-lanean, hor ekin diot –batzuetan sutsu eta besteetan Vaticanokoa nahi nukeen diplomaziaz– neure zalantzak, zuzenketak eta desadostasunak adierazteari. Eztabaidak gogorrak eta luzeak dira sarri. Batzuetan, nik iradokitakoa onartzen dit Jorgek. Beste batzuetan, erdibide bat paktatzen dugu. Gehienetan, ordea, berearekin ateratzen da (eta hala behar luke, onartzen dut, ondo kostata onartu ere, itzulpena ere sortze-lana baita, etabar).

Neuk ere irakurria nuen Bohumil Hrabal-en *Quién soy yo*. Beti aitortu dut oin-oharrez soilik egindako eleberri bat egiteko gogoia, baina Hrabalen erreferentziak ez dit balio, ez

bada baztertzeko neuk neuretzat erabaki nahi dudan antolamenduaren erabakietatik. Bestalde, Jorgek ez du, nik dakidanez, *Quai des brumes* ikusi. Robert Walser-en *Jakob von Gunten* pasatzen diot: "Irakurri ezak, horko tonu hori izan nian gogoan bigarren narrazioko hainbat testuetarako".

Lanean ari garen garaian, neure iturri, asmo eta nondik norakoei buruzko hainbat aitorpentxo egiten dizkiot Jorgeri; saihestezina da aitorpenok egitea, baina ez ditut gehiegi egin nahi, pixka bat lotsaz, beste pitin bat zuhurtziaz, beste apur bat iruditzen zaidalako Jorgek bere iturri, asmo eta nondik norakoekin eraiki behar duela bere itzulpena.

"Ez dago deus jantziagorik gizakien hizkuntza baino; esaldi malgu bezain ugariak daude bertan; neurgaitza da hitzen eremua haranzkoan bezala honanzkoan ere", zioen Ulisesez. Margherite Yourcenarrek, bestalde, maleta ireki batekin konparatzen zuen itzulpena: objektu bat sartzen duzu bertan. Pentsatzen duzu egokiagoa dela beste bat. Aldatzen duzu, berriro lehendabiziko objektuari begiratzen diozu, hartzen duzu erabakia; beste objektu baten txanda da, antzeko prozesua segitzen duzu bigarren objektuarekin ere, baina orain, bigarrenak lehendabizikoa du alboan;

ondo al datoz, batek ez al du bestea ukatzen? Eta horrela, pixkanaka, maleta betetzen ari da itzultzailea. Baina idazlearena ere ez al da jokabide bera, eskuizkribuetako zirrimarrak eta borroiak ez al dira idazle jakin batek maletan sartu nahi zituen objektuei buruzko zalantzen zantzuak?

J.G.B. (2)

Berezkoa al du itzulpengintzak puntutxo psikoanalitiko?, edo neronek, auskalo zein joera psikotikok eraginda, erantsi ohi diodan zerbait da?

Nolanahi ere, eta tinko deliberatuta erantzun fidagarririk ez duten galdera erretorikoak aurrerantzean sahiestera, aitor dezadan Anjeli eskuratu diodan testu itzulia nolabaiteko galbahe psiko-literariotik pasatua dela: han eta hemen sentitu ditut sortzailearen beldur estetikoak; antzeman dizkiot, hemen eta han, lasai-guneak eta iturria oparo ematen uzteko gogo betea; ikusi uste izan diot damuaren aztarnaren bat edo beste ere...

Pentimento esaten zaio, nonbait, margolariak, hasierako asmoaz damuturik, margoperatzen duen hasierako zirriborroaren zantzuari. Denborak, eta denboraren lagun izan ohi diren gainerako higadurek, agerian uzten dituzte, batzuetan, *pentimento* horiek, musek mendeku hartu nahi izango balute bezala margolariaren borondate bihurriaren ordainetan. Izan ere, musak, ondo dakigunez, lehendabiziko asmoaren defendatzaile porrokatuak dira, eta lanketaren mamu ilunei leporatzen dizkiete, beti, asmo haien desbideratzeak oro. Alegia, musak Peter Panen konplexuak jota bizi dira, eta ez dute erraz barkatzen sortzailearen heldutasun egarria.

Ba al du musarik, baina, itzultzaileak? Hobe esanda, izan behar al du halakorik? Edota, disimulu gutxiagorekin eta hona ekarri gaituen kasutik hurbilago planteatuta: noraino men egin beharko nuke Anjelek esaten dizkidanak akats soiletik haratago doazenetan?, noraino, alegia, izan beharko nuke sortzailearen konplize, haren iradokizunek *pentimentoak* sakonago lurperatzea dutenean helburu?

Ez dakit. Okerrena, ordea, beste zerbait da: traduktologiako akademia guztiekiko nire errespetua handia izanagatik ere, ez nago aurreko galderei erantzun zurrunik emango dien epairik onartzeko prest. Anjelen obraren nire itzulpenari dagokionez ari naiz noski. Eta, gainera, ez nuke halakorik aitortuko itzultzaileon gremioaren bilkura formal batean, are gutxiago Europako Literatura

Itzultzaileen Elkarteen Kontseilua biltzen den tokian. Lagunarterako pentsatu eta esaten diren kontuak dira hauek, eta, sinetsiezadazue, ukatu egingo nuke neure baieztapen hori, baita torturapean ere, Literatura Itzultzaileen Epaitegi Gorenaren aurrean.

Beste kontu batzuk dira ni kezkatzen nautenak, Anjelen kezka ere oso bestelakoak diren bezala, neure baitan daramadan psikoanalista frustratuari kasu egitera behintzat. Saia nadin, bada, era sistematiko antzean agertzen kezka horiek, eta, atrebentzia zilegi bazait, ondoan nire-gure errezetatxoak paratzen:

1. Ez dago bion gaztelania komunik. Anjel nire ahoz mintzo da gaztelaniaz, baina Anjel da mintzo dena, ez ni. Ba, hori...

2. Sortzailea xede hizkuntzan eroso sentitzearena, guztiz kontu subjektiboa da. Artegitzan ia dena bezala. Erosotasunak, ordea, elektrizitatearekin du antzik handiena: alderantzizko joera duten bi poloak behar ditu, argirik sortuko bada, eta, gainera, lurrarekin lotura zuzena duen hirugarren kablea ere ezinbestekoa du. Inazio Mujika adiskideak askotan emana dit abisua: "Kontuz metaforekin! Bat jaregin orduko, galduko zaik esan nahi huenaren zentzua!". Onartu beharko dugu, bada, norbaitek interpretatu nahi izatea lurrarekiko kable horren barruan nolabaiteko "errealitate objektiboa" ezkututzen dela, baita ere "publikoaren gustuaz" edo "modan dauden erregistroez" ari naizela. Ez dut, alabaina, susmo horien zilegitasuna ukatuko, ez baina zilegitasun hori baiesteko gauza ere.

3. Muga garbi bat ikusten dut nik sortze lanaren eta itzulpengintzaren artean. Jabetza intelektualak —eskubide estetikoaz ari naiz noski—, hierarkia nabarmena du hor, eta prest nago Anjel bera baino Anjelago izateko xede hizkuntzarekiko jokabidean. Hau da: behartuko dut gaztelania Anjelek euskara behartzen duen neurrian; arriskuak hartuko ditut, sortzailearen parekoak, euskaraz berritzaile diren erregistroek gaztelaniaz zahar kutsurik behintzat izan ez dezaten. Bestela, zertarako abiatu?

4. Harreman literarioa da, beraz, gu biona. Uneoro indarrez eta batzuetan haserrez mamitzen den harreman literarioa, esparru horretako harreman

guztiak bezalakoxea, bestalde. Ondorio baliagarriak ateratzen ditut nik bion arteko kontrastetik, eta, sumatzen dudanez, ondorio baliagarriak ateratzen ditu Anjelek bere lanerako, xede hizkuntzak dakarkion mundu ikuskerak eta aukera estilistikoak berarenak aberasten dituen neurrian. Ez dut gurea eredutzat proposatzen, ez eta Anjelekin beste modu batera lan egin nahi ere.

Marguerite Yourcenar-ek Julio Cortázar maisua izan zuen, *Mémoires d'Hadrien* liburuan, gaztelaniazko maleta-betetzailerik. Ez dakit Cortázar-ek Yourcenar-ekin hitz egin ote zuen, ez eta Yourcenar-ek gaztelaniaz ba ote zekien ere. Baina nik ez dut *Memorias de Adriano* liburuan Cortázar-en ahotsa entzun. Horixe eskaini nahi nioke Anjelen gaztelaniazko irakurleari, baita Anjeli berari ere. Zilegi balitzait. Horrenbesterako gauza banintz.

A.L. (3)

Itzulpena kalean da. Kritikari gehienek eskaini diote txaloren bat itzulpen-lanari. Kritikariak ez dakite euskaraz, eta, txaloen zergatia ulertu nahirik, ez zait argibide hoberik bururatzen: ohikoa ez zaien hots bat entzun uste dute Jorgeren itzulpenean, eta pentsatu nahi nuke ohikoa ez zaien ahots bat ote dagoen susmatzen dutela jatorrizko hizkuntzan ere.

Ez da etekin makala. Baina itzul nadin jatorrizko hizkuntza horretara. Jorge eta ni elkarrekin lanean hasi ginenetik, burutik pasatzen ez zitzaizkidan auziak hausnartzen hasi behar izan nuen. Euskal hiztunok –eta, jakina, euskal idazleok ere bai, neurri handi batean– kontaktuan edo anabasan edo morokilean edo zurrunbiloan bizi ditugu euskara eta gaztelania, edo euskara eta frantsesa, edo hiru hizkuntzak batera. Ez, ordea, kontrastean eta berdintasun-desberdintasunen analisia eginez, hizkuntzarik ahulena indartsuenaren korrontean murgildurik baino.

Horretaz jabetzeko balio izan dit biok orain arte egin dugun lan moduak; kontrasterako aukera eman dit horrek;

jakitunago naiz orain hizkuntza txikitakoei ia oharkabeen nagusitzen zaizkigun asimilazio estetiko eta gramatikalen auziaz. Diotenez, egoera diglosikoa bizi duten hiztunen jardunean –eta, okerragoa dena, baita idazleenean ere– sarria izaten omen da esan nahi denaren eta benetan esaten denaren artean tarte handia egotea. Kontaktuko hizkuntza indartsuak ahularen bazter ezkutuenetara ere barreiatutako itzal luzearen eraginagatik da. Neure langintzari begiraturik, itzal hori zabala da, demagun tradizio literarioaren auzian. Ikus ezina baina erreala, demagun konparazio edo metaforizazio sistemarenean. Lanbro sarri baten antzekoa, demagun euskararen egitura aglutinanteak dakarren prozedura erritmikoari dagokionez. Suntsitzailea, demagun erretorikaren esparruan, demagun Yorgos Séferisek gaurko grekoagatik seinalatzen zuen eremu hartan:

“Gure hizkuntza bedeinkatua berritu: abantailaren bat izan behar genuen literatura zahar, literatura behin eta berriz landuen aurrean”.

Jar dezadan arreta pitin bat, labur eta arin zurrean badarik ere, Séferis-ek aipu esanguratsu horretan plazaratzen duen homologazioaren kontzeptuan. Beste sistema baten onarpena omen homologazioa, baina zein da

homologatu behar gintuzkeen sistema? Gaztelaniazko literaturaren itzal luzea soilik? Prest al nago gaztelaniazko literaturaren ezaugarriekin bat etortzen saiatu eta literatura kolonizatu-berdindu bat hauspotzera?

Erantzuna, jakina, ezezkoa da, Von Chamissok aholkatzen zigun bidetik: "Laguna, gizartean bizi nahi baduzu, ikasi estimatzen lehenik itzala".

Testuak, ezein delarik ere jatorrizko hizkuntza, autonomia behar du, adierazkortasuna hizkuntzaren beraren baitan bilatu eta hizkuntzaren beraren baitatik ateratzen duena. Neure hizkuntzaren baitako ahotsaren indarra eta orijinaltasuna bilatuz soilik lortuko dut homologazioa, obraren beraren baitan baitago homologazioaren galga.

Gu bion jardunean zehar zuetako batek baino gehiagok izango zuen tentaziorik galdetzeko ea zergatik ez ditudan neure lanak nik neuk itzultzen: espero dut erantzuna emango nuela nire hirugarren jarduntxo honetan.

"Ez dago deus jantziagorik gizakien hizkuntza baino; esaldi malgu bezain ugariak daude bertan; neurgaitza da hitzen eremua haranzkoan bezala honanzkoan ere", zioen Ulisesek Troiatik Itakara bueltan.

Itzulpena eta literatura oro Itakatik Itakaranzko itzulera baita.

J.G.B. (3)

Amaitu da zubigintza. Gaztelaniaren ertzekoek dastatzen ahal dute, honezkerok, Anjelen obra. Interesgarria litzateke erkatzea euskararen ertzetik bere garaian jasotako oihartzunak ertz erdaldunetik iristen direnekin; euskaldunon ertzean ez gara, baina, literatur kritikara emanegiak, eta nekez gainditu ohi dugu erreseinaren muga.

Hala ere, bada non kontrastaturik bi oihartzun horiek: eleberria euskaraz plazaratu zenean, Anjelen idazkerarekiko laudorioa agertzen zen, aldez edo moldez, erreseina, kritika-nahi eta kritika peto gehienetan. Batzuetan, tamalez, horretara mugatzen zen kritikagile edo erreseinagilea, epaitzen edo zabaltzen ari zena artelan bat zenik usaindu ere gabe. Gaztelaniaren ertzetik datozenetan, berriz, zeharkako aipu soila izan ohi da idazkerarekikoa, eta, gehienetan, dezentez mamitsuagoak gertatu dira kontakizunari berari buruzko iruzkinak eta abarrekoak.

Bi kontu horiek agerian jartzen dituzten arazoetan, txanpon bereko bi aldeak ikusten ditut nik: aurkian, Anjelek eta beste hainbatek sarritan salatu duten euskal literaturaren eremuko kritikaren urria; eta, ifrentzuan, Juan Garziak gaitzetsi izan duen itzulpen kritika espezializatu eza.

Bego bere horretan, gaurkoan, kontu horiekiko gogoeta, luze eta koropilatsua beharko lukeena eta, seguru asko, nire ahalmenetik gaindikoa litzatekeena. Bada hor zerbait, alabaina, itzultzailearen lanarekin garbi lotzen dena: harritzeko gertaera den neurrian, era berezi batean baloratu beharko litzateke erdal kritikagileek itzulpenarekiko egin dituzten aipamen horiena. Izan ere, eta hauxe da niretzat pozgarriena, itzulpenak ez du, antza denez, sortzailearen idazkera lausotu edota itxuraldatu. Alegia, gaztelaniazko idazkera horri aipagarria iritzi baldin badiote, euskarazkoaren arriskuak eta aurrerabideak bereganatzen asmatu duelako da, eta, horrenbestez, itzulpenak dagokion zeregina bete du, zubigintza hain zuzen ere, eta, horrela, sortzailearen lanak hobekien ematen dion janzkia darama soinean: literaturarena. Ezein

hizkuntzatan irakurtzen zaiolarik ere, testu erabat autonomoak, burujabeak, sortzea baita, azken finean, idazlearen helburu behinena.

Bidean, dezente aberastu zait itzultzailearen maleta: beste urrats bat barrurago eman dut Anjelen idazkeraren barne logikan; hobeto ezagutzen dut orain euskara, eta etekin hobea atera ahal izango diot, aurrerantzean, neure gaztelaniari, bai Anjelen hurrengo lanak itzultzeko garaian, bai eta bestelako eginkizunetarako ere. Eta, batez ere, literatura ikasi dut. Ondo aprobetxatutako bidaia, beraz.

Eta itzuleran gaudenez, itzulpenaren inguruko jira-bueltan, itzuliz amai dezagun jarduna, baina, oraingoan, Anjelen beraren testua baliatu nahi nuke, literatur egitasmo oso baten adierazgarri ezin hobea iruditzen baizait Anjelek *Argizariaren egunak* eleberrian eskaini zigun *Dura lex, sed lex* latinezko esamoldearen itzulpen-moldapena: “Astoak eder du makila”. Alegia, literaturatik literaturaranzko itzulera da itzulpengintza.

Mila esker.